

NIRE BURUTIK

Leire Arenas Belamendia, 13 urte

Azpeitia

Behin, maitia, zu faltan
oraindik nire burutik atera gabe zeundenean
gelako argiak itzali nituen.

Nire belarrietan Mettalica-ren
ezerk gehiago axola ez duela
esaten duen kanta hori.
Melodiak noraezean jarri ninduen
zure izena esanez
tarteka kantatuz
iluntasuna ta doinu hura
zukanako gidari.

Lurrean etzanda
gora begira.
Zure muxuak nituen desio
baina ezpainak erreak
zure ilea ukitu nahi
ta hatzak moztuak.
Orduan jabetu nintzen...

Arrosa sorta polita
zeneukan lorategian,
arantzaz beteak,
bihotza urratu ta
gorria zabaldu zen denera.
Igerian deitu zintudan
ta behera, zulora
bultzatu izan bazenit bezala izan zen.

Bestetan berriz lehenengo tantoa erortzean
aterkia luzatzen zenidan,
eskua nire poltsikoan sartu ta bagindoazen
ostadarraren kableei su ematera
eguzkiarekin bat egin eta argi gintzan,
zure begirada bat nahikoa zenean
mundu oso bati distira egiteko.

Hiru bihotz dauzkat ta nik ez dakit
nola konpontzen diren elkarrekin,
bi, oso-osorik zuretzat dira
eta beste bat ni zure aurrean ez erortzeko behar dut.
Zainez inguraturik dagoena? Birziklatu egin nuen,
zuri maitasun taupaden maketa bat egiteko.

Inongo sokatik zintzilik
inongo lekuetatik azalduz
nire deabrutxoara zara.

Ez, ez, infernuko garrekin egindako
aingeru begi transgeniko horiek
jada ez dut inor engainatzen.

Begiratzeko modua, ordea, beste istorio (misterio)
bat da.

Ilargi bat egin nizun eta
betea nahi zenuela esan zenidan.
Betea jarri eta izarrak falta zitzaizkiola.

Iribarre maltzur bat ageri da,
marrubi goxo hori irekitzean
estalaktita luzeen kobazulo horretan,
mingain bifidoa zen dantzari,
nire ahora sartu ezkerer edozer gauza esanarazten
zidana
bekatuaren mugara eraman
eta erortzen uzten ninduena.

Ba bukatu da,
zure diktadura zorrotza.
Belauniko erregututa ere
ez naiz berriro zugana inguratuko.
Soineko gorri estu horrek ez du errurik,
ez egiozu tira.

Zure pozoia pasatu ondoren
nire ahoa ere gaiztotu da,
ez zait axola pentsatzen duzuna
joan zaitetz antzarrak ferratzera,
ea mokoka jaten zaituzten.